LAUDIO ikastola
zabal bideak
ARABA EUSKARAZ 2021 LAUDIO
2021/03/25

# HAUR DANBORRADA

## LEHEN HEZKUNTZAN SAN PRUDENTZIO BEZPERARAKO BIDEOA PRESTATUKO DUGU

Apirilaren 27an, San Prudentzio bezperan, Laudioko Haur Danborrada ezin izango dugu ohi bezala ospatu.

Aurtengoan berriz, iaz ez bezala, Ikastolan egongo gara egun horietan eta Haur Danborrada gelaz gela ospatuko dugu.

Apirilaren 27rako ikastalde guztiekin osatutako bideoa prestatuko dugu Lehen Hezkuntzan eta horretarako grabaketak burututuko ditugu apirilaren 20an, 1. mailatik 4.era eta 21ean 5. eta 6. mailan.

Bideo grabaketatan ikasleak zuriz jantzita agertu beharko dira.

Maila bakoitzak danborradako kantutegiko kanta zehatz batzuk prestatuko ditu grabaketa egun horietarako:

LH1: Erretreta
LH2: Erretreta
LH3: Erretreta eta Gasteizko martxa
LH4: Erretreta eta Diana
LH5: Erretreta eta Donostiako martxa
LH6: Erretreta eta Gau ibilera

Kanta bakoitzaren tutoriala prestatu dugu oporretan presta dezazuen:

**Erretreta** | **Gasteizko martxa** | **Diana** | **Donostiako martxa** | **Gau ibilera**

## HAUR HEZKUNTZAN OPORRETAN DANBORRA PRESTATZEA PROPOSATZEN DUGU

Haur Hezkuntzako etapan ere danborrada landuko dugu oporren bueltan.

Horretarako oporretan etxean ikasleekin batera berrerabiltako materialekin danborra egitea proposatzen dizuegu familie, apirilaren 12tik aurrera gelan erabili dezagun. Hona hemen adibide batzuk:

